# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

### 4832

*1749/2022 EBAZPENA, abuztuaren 29koa, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Itziar Martinez Soroa andrea izendatzen den Osakidetzako Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko Oftalmologiako Atal Sanitarioko Buru (Begi-azalera, kornea eta kristalinoaren Unitatea), aldi baterako, lau urte luzagarriz.*

Donostialdeko ESIko zuzendari-gerentearen abuztuaren 13ko 1099/2021 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Donostialdeko ESIko Oftalmologiako Atal Sanitarioko Burua (Begi-azalera, kornea eta kristalinoaren Unitatea) izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez. (2021eko abenduaren 9ko EHAA 245. zk. eta 2021eko abenduaren 16ko BOE 300 zk.).

Epaimahaiak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Itziar Martinez Soroa andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori izendatzea Osakidetzako Donostialdeko ESIko Oftalmologiako Atal Sanitarioko Buru (Begi-azalera, kornea eta kristalinoaren Unitatea)

Beraz, bat etorriz Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluaren hirugarren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Itziar Martinez Soroa andrea Osakidetzako Donostialdeko ESIko Oftalmologiako Atal Sanitarioko Buru (Begi-azalera, kornea eta kristalinoaren Unitatea) izendatzea aldi baterako.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluaren hirugarren arau komunean ezarritakoarekin bat, eta egun honetatik aurrera izango ditu ondorioak: 2022ko irailaren 1a.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du postua, ezpada luzapena egin ahal izateko baldintzaren bat jazotzen dela eta, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen aipatutako 28. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik izendatua, aldez aurretik kontrako espedientea dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluaren 6. apartatuan aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Ebazpen honen berri ematea interesdunari eta Donostialdeko ESIari.

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Donostia, 2022ko abuztuaren 29a.

Donostialdeko ESIko zuzendari-gerentea.

EB (53/2019 Ebazpena, urtarrilaren 24koa).

Langileen zuzendaria,
ESTHER LITAGO SOLA.